



A AUKERA EDO **B AUKERA** HARTU, ETA OSORIK EGIN


A AUKERA

1. ZATIA. DEFINITU ONDOKO TERMINO HAUEK Gehienez: **3 puntu**

- a) Erromatar probintziak
- b) Iruñeko erresuma
- c) Gaztelako Erresumaren eta Aragoiko Koroaren arteko batasuna.
- d) Bankarrotak
- e) Familia-itunak

2. ZATIA. GRAFIKOA: *Lehen Mundu Gerraren ondorioak. 1913a eta 1924a bitarteko grebak.*

Grebalari-kopurua 1913a eta 1924a bitartean



Iturria: Simón Segura: *Historia Ekonomikoa*, 1997.

Aztergaiak	Gehienez: 3,5 puntu
a) Deskribatu grafikoa.	Gehienez: 1 puntu
b) Interpretatu grafikoa.	Gehienez: 2,5 puntu

3. ZATIA SINTESIA: *ISABEL II. ERREGEALDIA: MODERATUAUAK ETA PROGRESISTAK* Gehienez: **3,5 puntu**





ESPAINIA ETA NAFARROAKO HISTORIA

A AUKERA EDO **B AUKERA** HARTU, ETA OSORIK EGIN

B AUKERA

1. ZATIA. DEFINITU ONDOKO TERMINO HAUEK Gehienez: **3 puntu**

- a) Neolitikoa b) Karlos III.a "Noblea" c) Kontratazio-etxea
d) Lurralde-oinordetza e) Kreolak

2. ZATIA. TESTU HISTORIKOA: Municheko Kongresuaren erabaki politikoa (1962).

"Europako Mugimenduaren Kongresuak, 1962ko ekainaren 7an eta 8an Munichen bilduak, uste du Europako herrialde guztiak integratzeak, bai atxikiz, bai elkartuz, erakunde demokratikoak edukitzea eskatzen diola bakoitzari, eta horrek, Espainiaren kasuan, Giza Eskubideen Aldeko Europar Konbentzioaren arabera eta Europako Gutun Sozialaren arabera, honako hau ekartzen du:

1. Herritarrak benetan ordezkatzeko erakunde demokratikoak ezartzea, bermatzen dutenak gobernu bere mendeko onespenean oinarritzen dela.
2. Gizakiaren eskubide guztiak benetan bermatzea, batez ere pertsonaren askatasuna eta adierazpen askatasuna, eta gobernuaren zentsura kentzea.
3. Erkidego naturalen nortasuna aitortzea.
4. Sindikatu-askatasunak oinarri demokratikoekin erabiltzea, eta langileek bere oinarrizko eskubideak defenditzea, besteak beste, grebaren bidez.
5. Iritzi korronteak eta alderdi politikoak antolatzeak aukera izatea, eta oposizioaren eskubideak aitortzea.

Kongresuak itxaropen funtsatua du, aurreko oinarrien arabera gauzatutako bilakaerak modua emango duela Espainia Europan sar dadin, bere oinarrizko elementua baita, eta gogoan hartzen du Kongresuan egon ziren Espainiako delegatu guztiak uste osoz adierazi zutela espainiar gehien-gehienek bilakaera hori gauzatzea nahi dutela.

Álvarez de Miranda, F.: *Del "Contubernio" de Munich al consenso*. Barcelona, Planeta, 1985.

Aztergaiak	Gehienez: 3,5 puntu
a) Kokatu testua bere testuinguru historikoan.	Gehienez: 2,5 puntu
b) Aipatu Europako Mugimenduak Espainiako gobernuari egindako eskakizun batzuk Munichen egindako Kongresuan, non erregimen frankistaren aurkako oposizioak parte hartu baitzuen.	Gehienez: puntu 1

3. ZATIA SINTESIA: INPERIO KOLONIALAREN AMAIERA. 1898ko KRISIA ETA BERE ONDORIOAK. Gehienez: **3,5 puntu**